

2018. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2017ko abenduaren 22an izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2017/12/29. 247. zk., 6. zatia. Akats zuzenketak BAO 2018/01/24. 17 zk.

ORDENANTZA FISKALA, AUTO-TAXI LIZENTZIEN TASEA ARAUTZEN DAUENA

1. artikulua. OINARRIA ETA IZAEREA.

Tokiko Ogasunen 5/89 Foru Arauaren 2. eta 20. artikuluetan ezarritakoagaz bat etorrira, udal honek Auto-taxien Lizentzien Tasea eskatuko dau.

2. artikulua. ZERGA EGITATEA.

Tasa honen zerga egitatea auto-taxien lizentzien ganeko zerbitzuak emotea eta jarduerak egitea da, martiaren 16ko 763/1979 Errege Dekretuak onetsitako erregelamentuan agertzen diranak eta automobil arinen garraioko uriko zerbitzuen ganeko Udal Erregelamentuak garatuak hain zuzen be. Hona hemen zerbitzuok eta jarduerok:

- a) Lizentzien kontsezinoa eta emotea..
- b) Lizentziak eskualdatzeko baimena emotea, halan egitea egokia danean eta indarreko legeriaren arabera.
- c) Lizentziari lotutako ibilgailuak aldatzeko baimena emotea, bai aldaketea borondatezkoa danean, bai legeak aginduta danean.

3. artikulua. TASA KUOTEA.

Tasa kuotea kopuru finko batez finkatuko da, zerbitzuaren edo jardueraren eta honako tarifa honeen arabera:

	2018
1- Lizentzia emotea	358,79 €
2- Bizien artean lizentzia eskualdatzeko baimena	1.373,80 €
3- Heriotzeagaitik derrigorrezko oinordekoen alde lizentzia eskualdatzeko baimena	630,33 €
4- Ibilgailua aldatzeko baimena	18,18 €

4. artikulua. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK.

Legeetan edo Nazioarteko Itunen aplikazioetan beren beregi ezarritako salbuespenak edo hobariak baino ez dira emongo.

5. artikulua. SORTZAPENA.

Tasea sortuko da eta tasea ordaindu behar izango da udal honek lizentzia emon eta luzatuko dauen egunean edo lizentzia eskualdatzeko edo ibilgailua aldatzeko baimena emongo dauenean.

6. artikulua. ORDAINTZEA.

- 1.- Tasea honetako jarduerak eta zerbitzuak alde batek eskatuta egin beharko dira.
- 2.- Kuota guztiak kitatu egingo dira zuzeneko ordainketea egiteko lizentzia edo baimen egokiak emonda gero, eta zergadunek diru-bilketearen ganeko erregelamentuan ezarritako epean ordainduko ditue kuotak.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan beren beregi araututa ez dagoanaren inguruan, udal honek onetsi dauen Kudeaketa, Diru-bilketea eta Ikuskapenaren gianeko Ordenantza Fiskal Orokorra eta aplikatzekoa dan legeria bete beharko dira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betiko onetsi eban Udalbatzak 2000ko urriaren 26an egindako Osoko Bilkuran, eta haren aldaketak 2000ko abenduaren 30ean argitaratu ziran BAOren 251. alean. Halanda ze, 2001/01/01ean sartu zan indarrean eta indarrean jarraituko dau harik eta beren beregi aldatu edo indarrik barik itxi arte.